



PP. SACRAMENTINOS

TOLOSA 196I-go ilbeltzaren 15-ean.

Pierre Lafitte Jaunari.
Baiona.

Jaun argia: Itz bi zuzendu nai nizkizuke. Zuk ateratzen dezun "Herria" astero irakurtzen det. Labaien Antonio jaun tolosarrak uzten dit, Ederki dago eguneroko ori eta atsegifnez irakurtzen det. "Oxobin" bertso ta olerki bilduma bat ateratzeko zerate; ar zazu mesedez nere izena. Bear dana pagatuko dizut. Gai oni buruz Antonio Labaien-ekin egona natzaizu, eta ura Baiona-ra doakenean, emango dizu dirua.

Beste liburu bi ere eskatu nai nizkizuke. Liburu oiek Baionan saltzen aal dira ta, arkituko bazenitu bial izkidazu. Liburu auk auk dira: Jean Etchepare-n "Buruxkak" eta "Beribilez". Bi oiek ere, Antonio Labaien-en bidez ordainduko dizkitzut.

Mille esker, onenbestez. Jainkoak dizula osasun, euskaldunen artean lanik asko egin dezazun. Agur!!!

Salvador Garmendia
SSS